

Nafarkaria

Egunkaria

• ostirala • 1999ko urriaren 1a

ZALDIEROA.komikizopa

NOSKI
JATOR
PALEOLITIKOAN

Bertsolaritzaren
hasapenak



Nafar Kronika

Aitor Arozena

Udazkena eta usoak

Hemen da udazkena: giltzaurrak, onddoak eta gaztainak lurrean eta usoak airean. Usoak, oi, usoak! Bakearen uso erraten zaie, baina eskopeta danbatekoen artean eta betiko polemiken artean igaroko dituzte Pirinioak Hegoalde-rantz. Ttipi-ttapa aldizkarian agertzen denaren arabera, Baztanaldea, Leitzaldea, Malerreka, Bortziriki, Senpere eta Saran 1.200 ehiza postu baino gehiago daude, 81 ehiza-tokitan banaturik. Ingu-ru honetako populazioaren %15 ehizta-riak dira, hori haurrak eta adinduek bar-nean sartuz eta hagitz emakume ehiztari gutti daudela kontuan hartuz. Gizaseme helduen erdiak baino gehiagok eskopeta-ren bat baduela etxean erratera ausartu-ko nintzateke. Hauer, postuen truke izu-garrizko dirutzak ordainduz etortzen diren kanpotarrak gehitu behar. Eskope-ta, baimenak, errebisioak, kartutxoak... dirutza handiak mugitzen ditu fenomeno sozial honek, baina ez dirudi ehiztariel aunitz inporta zaienik; pentsa! Udan bai-no nahiago izaten dute aunitzek urrian oporrak hartu, hilabete osoa etxola tiki batean igarotzeko baizik.

Danbatekoak eta polemikak aipatu ditugu, izan ere solasaldi sutsuen solas-gai suertatzen da ehiza. Ehiztari ez gare-nok guttiengo etnikoa osatzen dugu ingu-ru honetan, eta kontra egiteagatik bertzerik ez bada ere, xirikatu egiten ditu-gu kafea hartzen beraien balentriak kon-tatzen dituzten ehiztariak. Nahiz eta gero, usoa saltsan prestatuta gustura aski jan!

Ekologistek argi gorria bixtua dute aspaldidanik, eta lehenbailehen neurri batzuk hartu beharra aipatzen dute, ez badugu Ameriketako usoei gertatu zena gertatzerik nahi. Han ehun urteren buruan espezie oso bat desagertu zen ehi-zaren eraginez. Ehiztariak ez dute arazoa horrenbertzerako denik uste, gehiago oraindik, ez dute arazoa inondik ikusten. Gainera, Iparraldeko ehiztariak ere gehi-go tiratzen omen diote hegaztiari, edozein modutan, hegaztien norabidea desbidera-tuz. Bistan da, norberak berea defenda-tzen du. Kontuak kontu, hau leitzen duzunerako hasi izanen dira eskopetak mintzatzen. Beraz, kontu eman mendira zoazenean.

gure aukerak

KONTZERTUAK

► **Iruñea:** Carmen Virus taldearen kontzertua gaur, Artsaia aretoan, 23:00etan. Sarrerak 800 pezetan.

HITZALDIAK

► **Antsoain:** Antsoaingo Eztabaida Foroak denboraldi berria hasiko du gaur. Kuba edo libertateen dilema eztabaida izanen da, 20:00etan, Foroaren egoitzan, Nafarroako Foruen karrikako 3.ean.

ANTZERKIA

► **Atarrabia:** Gaur Markeliñe taldeak Aló, Europa lana antzez-tuko du, udaletxeko plazan, 21:00etan.

KIROLAK

► **Otsagi:** Igandean Nafarroako Pirinioetako BTTren II. Saria (mendiko bizikleta proba) egi-nen dute Otsagiko eremuetan barrena. Irteera goizeko 11:00etan izanen da.

IKASTAROAK

► **Barañain:** Emakumeen taldeak emakumeendako gizarte tre-betasunen inguruko ikasta-roa antolatu du.

► **Iruñea:** Alde Zaharreko Auzo el-karteak hainbat ikastaro an-tolatu ditu urri, azaro eta abendurako. Yoga, masaje, argazkilaritza, txalaparta, ae-robic, marrazketa edo eho-ziri lanaren inguruko ikastaroak egingen dituzte. Matrikulazioa urriaren 8a arte egin daiteke, auzo elkartearen egoitzan (Al-dapa, 5) edo telefonoan (948-212526).

ERAKUSKETAK

► **Burlata:** Igandea arte 'Un paseo por el Cosmos' erakusketa izanen da Kultur Etxean. La-

runbata bitarte 19:00etatik 21:00etara bisita daiteke erakusketa, eta igandean, 12:00etatik 14:00etara.

BESTELAKOAK

► **Ezkaroze:** Bihar, larunbatare-

kin, Gazte Eguna egingen du-te. Herri bazkaria, haurren-dako jokoak, afarirako zikiro jatea eta kontzertua izanen dira, besteak beste.


► **Iruñerria:** IK Aren Iruñerriko euskaltegietan (Arturo Cam-pion, Barañain, Ermitagaña, Mendillorri eta Atarrabia) ize-

na emateko epea azkeneko egunetan da.

► **Iruñea:** Ortazar Euskal Fol-klore Taldeak bertako dan-tzak eta musika ikasi zein ikertzeko nahia duenari deia egiten dio. Informazioa: 948-252665 edo 948-223107 tele-fonoetan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



Chora porque o cacique deixou a pedir. Se fosse um irmão labrego teria o fendo o coração.

Sauntxoak eskeko-pobretu duelako negar egiten du. Nekazari anaia bat baltiz, bihotza janen zion.